

Euskal Herriaren memoria

Euskaldunon Egunkaria, 1994-03-15: 2.

Europar auzi handi bat sortu da orain gizaldi erdi bat gertatu eta "joan" zen mundu-gerraren inguruan: Ea legezko den orduan gertatu ziren nazien zanpaketa eta tortura izugarri haiek gogoratzea, ala historiaren bazter batean utzi behar dugun. Bada arrenkura hura ahaztu behar dela dionik, gorrotokeriari beldur, eta bada bestetik, juduak bereziki, holokaustoaren gomuta gorde behar dela dionik ere, memoria hau beharrezko delako honelakorik berriz gerta ez dadin. Gorrotoa ez da ona, baina ezer gertatu ez balitz bezalako ahanztura arina ere ez; oroimena, gizakiak galdu behar ez duen ahalmen handienetako bat baita. Egia da memoria gehiegi ez dela ona, higienikoa ez delako; ahanzten ere jakin behar baitugu gure osasunerako. Beti bezala, egia bien erdian dago. Gauzak honela eta gu ere orain Herri bezala Europar sentitzen garenez, noiz onartuko gaituzten ez dakigun arren, mundu-gerraren sustraletan sufritu genituen honen aurretik hasi eta gerrondoko martiriarenak, herri oso garela erakusteko, behekoak direnetik hasi eta goikoari begira dagoen sentikizuneraino, geuk ere badugu zer esanik. Honexegatik iruditzen zait garrantzi handia duela gaur Serafin Esnaola eta Emiliano de Iturragan apaiz euskaldunek argitaratu berri duten bi tomoko: 'El clero vasco en la clandestinidad (1940-1968)'. hemen dago, agiri zehatzen bidetik emana Euskal Herriko elizak sufritu zuenaren lekukotasun argia. Eta gorrotorik gabe, baina ez sosoki.